

Prensa-oharra

LUBMAT 2018 biltzarrak Donostian aztertuko ditu enpresen lehiakortasuna sustatzeko industria-lubrifikazioaren esparruan egin diren azken aurrerapenak

- ▶▶ *IK4-TEKNIKER euskal zentro teknologikoa eta JOST triboteknologiako britainiar institutua izango dira ekitaldiaren antolatzaileak*
- ▶▶ *Biltzarra ekainaren 5ean eta 6an egingo da Gipuzkoako hiriburuko Miramar jauregian*
- ▶▶ *Topaguneak industria-mantentzearen esparruko, tribologiaren esparruko, lubrifikazioko kudeaketaren esparruko edo beste hainbat esparruetako ordezkari nabarmenak bilduko ditu*

(Eibar, 2018ko ekainaren 5a).- Enpresaren digitalizazio-prozesuan modu errazean integratzen diren makinak, makinara sartutako adimena bai modu autonomoan erantzuteko, prozesuak akatsik gabeko piezak ekoizten dituela gainbegiratzuz eta ziurtatuz, bai makinaren egoera ezagutzeko, bai osagaien batek huts egingo duela edo kalitatean arazoren bat sortuko duela aurreikusteko, eta beste hainbat berrikuntza izango dira 4.0 industriaren gako nagusietako batzuk, 4.0 mantentzea gehituta.

Tribologian edo antzeko diziplinetan –narriadura eta korrosioa aztertzen dutenak– edo lubrifikazioaren kudeaketan egindako aurrerapenei esker, mantentze-estrategia igarleak aktiba daitezke eta horiek, beren aldetik, makinaren bizi-zikloa luzatu, kostuak murriztu, prozesuen efizientzia sustatu eta enpresen lehiakortasuna areagotu dezakete.

Ilido horretatik, beste hainbat diziplinen artean, tribologian –narriadura eta korrosioa aztertzen dutenak– edo lubrifikazioaren esparruan egin diren azken aurrerapenei esker, mantentze-estrategia igarleak aktiba daitezke, konpainiei aukera emanez digitalizazio-prozesuan guztiz integratutako makinak izateko. Horren bidez, enpresek ekipoen egoera ezagutu dezakete, izan

daitezkeen akatsak eta gabeziak hautemateko eta, ondorioz, ekipoen bizi-zikloa luzatzeko, kostuak murrizteko, prozesuen efizientzia sustatzeko eta lehiakortasuna areagotzeko.

Testuinguru horretan garatu da [LUBMAT](#) biltzarraren seigarren edizioa, [IK4-TEKNIKER](#) euskal zentro teknologikoak eta [JOST](#) Lancastershireko Unibertsitateko Triboteknologiako Institutuak antolatutako foroa. Ekitaldia ekainaren 5ean eta 6an egingo da Donostiako Miramar Jauregian. Eta, [Eusko Jaurlaritzaren](#) eta [Explore San Sebastian Region](#) eta [Donostia San Sebastian Tourism & Convention Bureau](#) turismo-sustapenerako erakundeen babesa izango du.

“The closest encounter between science and industry” esloganari jarraiki, zientzia-komunitateko ordezkari garrantzitsuak eta industria-eragileak bilduko dira bi egun horietan euren ezagutzak partekatzeko eta industria-lubrikazioaren erronkak aztertzeke, baita osagaien eta makinen egoeraren monitorizazioan fluidoan azterketaren bitartez egin diren azken aurrerapenak eta tribologiako azken joerak aztertzeke ere.

Ekitaldia tailerrez eta hitzaldiez beteriko bi jardunalditan egituratu da, eta nazioarteko hizlari ospetsuak izango ditu: adibidez, [Ohioko Estatu Unibertsitateko Nanopropa](#), [Nanoteknologia eta Biometria Laborategiko](#) zuzendari Bharat Bhusham, Bureau Veritas taldeko olioan monitorizazioko zuzendari Sam Fisher, edo [Fuchs](#) lubrifikatzaile-konpainiako I+G zuzendari Christine Fuchs, besteak beste.

Euskal zentro teknologikoak presentzia nabarmena izango du biltzarrean, hain zuzen ere hainbat hitzaldi tekniko prestatu baititu zentroko ikertzaileen gidaritzapean. Besteak beste, Eduardo Gilabertek optimizazio dinamiko aztertuko du bere hitzaldian, makinen mantentze-lanerako eta logistikarako gako metodologia gisa.

Beste alde batetik, [IK4-TEKNIKER](#) partaide duen [MAINWIND+](#) proiektuak haize-parkeetako mantentze-lanen prozesuak optimizatzeko asmoa dauka, eta Egoitz Kondek parte hartuko duen hitzaldietako bateko gaia izango da.

Era berean, [LUBMAT 2018](#)ri agur esateko, beren instalazioak ikusteko bisita gidatuak antolatuko dituzte [IK4-TEKNIKER](#)ek eta [BVLmK](#) (Bureau Veritas Lubrication Management).

[Jost](#) Institutuaren eta [IK4-TEKNIKER](#)en arteko lankidetzaren hitzarmen baten ondorioz sortu zen [LUBMAT](#), eta, pixkanaka, europar ekitaldi giltzarri bihurtu da industriaren eremuan, hain zuzen ere industria-lubrikazioaren esparruko produktuetan eta zerbitzuetan egindako azken aurrerapenak partekatzeko helburuarekin.

Eusko Jaurlaritzaren eta Explore San Sebastian Region eta Donostia San Sebastian Tourism & Convention Bureau turismo-sustapenerako erakundeak izango dira biltzarraren seigarren edizioaren babesleak.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak 35 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta ICTetan), eta abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen du horrek.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Eider Lazkano

eider@guk.es | Tel. 620 807 344

////////////////////////////////////